

Irudiaren diktadura.

Laburpena: Proiektu arkitektonikoaren garapena Gestalt enfokatu bateko irudia bezala tratatzera ohitu gara, nahiz eta errealitate arkitektoniko baten kalitatea gizabanakoak espazioan garatzen duen ikuste periferikoaren izatearen menpe dagoen. Foku-galerak nagusitasun patriarkaletik aska dezake begia.

Gako-hitzak: Irudia, Ikusmena, Begia, Zentzumena.

Abstract: Although we are used to treat the development of the architecture project as an image of a focused Gestalt, the quality of the architectonic reality is determined by the experience of peripheral vision that an individual develops in space. The loss of focus can release the eye from the patriarchal control.

Key words: Image, Sight, Eye, Sense.

Zigor Iturbe

EHUko arkitekto ikerlaria eta musikaria.



Aldiri, 1, 17, 2014, 26-29, ISSN 1889-7185

Jasotze-data: 2013-12-27 / Onartze-data: 2013-12-29



Sarrera

Pentsamoldea ikusizko terminoetan hartu da aintzakotzat Mendebaldeko kulturaren eta Errenazimentuko zentzumeneren hierarkian gorenekoa ikusmena zen, ukimena ez bezala, zein azken postuan kokatzen baitzen zerrendan. Perspektibaren errepresentazio-sistemaren asmakuntzak begia zentzumeneren munduaren zentroan kokatu zuen. Izan ere, perspektibaren errepresentazio-sistema forma sinboliko bihurtu zen, zeinek, deskribatzeaz gain, pertzepzioa baldintzatzen duen.

Bestalde, gure kultura teknologikoak zentzumena zorroztasun nabariago batekin ordenatu eta banatu ditu. Ikusmena eta entzumena dira gaur egun gizarteratutako zentzumeneren pribilegiatuenak, beste hirurak funtzio pribatu duten iraganeko zentzumeneren gisa tratatzen ditugularik, gehienetan, kulturak eraikitako kodeek ezabatzen dituztelako.

Modernity and Hegemony of Vision izenburua daraman David M. Levin-en saiakera filosofikoen bildumak azaltzen duen bezala, «greziarrendandik hasita, Mendebaldeko kultura paradigma begizentristak menderatzen du, ikusmenean sortu eta zentratu den ezagutza, egia eta errealitatearen interpretazioa da gurea».

Hala ere, ikusmenaren nagusitasunarekiko kezka ez da gaur eguneko kontua soilik. René Descartesek ere ikusmena zentzumeneren nagusien artean kokatu zuen, baina ikusmena ukimenarekin harremanetan jarri zuen, zeinek «ikusmenak baino ziurtasun eta errorearekiko ahultasun gutxiago agertzen zuen». Nietzsche ere begiaren pentsaera iraultzen saiatu zen bere garaikideen aurka. Jacques Lacan eta beste



hainbat pentsamenduaren eragile ere ildo horretan jardun izan dira.

Entzumenaren espaziotik ikusizkora

Gaur egunean ikusmenari zentzumen ezinbestekoena baderitzogu ere, ez da beti horrela izan, ikusmenak ez du beti gizakia menderatu. Izan ere, entzumenaren kultura baten nagusitasuna ikusmenak ordezkatu du apurka-apurka.

Walter J. Ong-ek, bere *Ahozkotasan eta idazketa* (1991) liburuan, ahozko kulturatik idatzizkorako trantsizioa eta eragina giza kontzientzia eta zentzumen kolektiboan aztertzen ditu. Ongen esanetan «ahozko hizkuntzatik idatzizkorako biraketa, esentzian, entzumenezko espaziotik ikusizko espaziorako aldaketa bat da» eta «inprimatzeak pentsaera eta espresioaren munduan entzumenaren nagusitasun iraunkorra ordezkatu zuen ikusmenaren nagusitasunagatik, zeinek idazkeran aurkitu zituen bere hasierak». Ahozko kulturatik idatzizkorako eraldaketak azaltzen ditu kontzientzia, memoria eta espazioaren giza ulermenean jasandako aldaketak.

Mezuaren euskarri batentzat teknika garatzera bidean, ikusmena izan da aurre hartu diena beste zentzu guztiei; idazkera zein marrazketaren bitartez. Kodifikatutako zeinuen hizkuntza edozein kasutarako. Urruti geratzen da soinuia jasotzeko 1857an asmatutako fonoautografo izeneko lehen gailua, soinuaren lehen erregistroa jaso zezakeena, historiaurreko lehen marrazkien aldean.

Irudiek makurtutako arkitektura

Greziar arkitektura, zuzenketa optikoen sistema garatu bat zuelarik, begiaren plazerarentzat findua izan zen. Baina ikusmenaren osagai inkontziente den ukimena bereziki garrantzitsua da eta sendo aurkezten da arkitektura historikoan gure garaikidearen aldean.

Ikusmenaren zentzumena nagusi azaltzen zaigu mugimendu modernoko arkitektoen idatzietan, eta ikustearen paradigma baldintza nagusia dugu hirien planifikazioan, Errenazimentuko planta idealen hirietatik hasita zonifikazioaren eta plangintzaren printzipio funtzionalak, zeinek ikusizkoaren garbitasun-nahia islatzen duen. Le Corbusierrek, adibidez, «arkitektura, argipean emandako bolumenen jolas jakintsu, zuzen eta bikaina da» (Le Corbusier, 1998) esatean, begiaren arkitektura bat definitzen du.

Forma arkitektonikoaren pertzepzio eta esperientzia ia beti izan dira aztertuak ikusizko pertzepzioaren Gestalt legeen bitartez. Era berean, filosofia pedagogikoak ikusizko baldintzetan ulertu du arkitektura eta ikusizko irudi tridimentsionalak espazioan eraikitzean jarri du bere arreta guztia. Ondorioz, oinarri existentziala duen esperientzia plastiko eta espazial baten ordeztu, arkitekturak publizitatearen estrategia psikologikoa eta bat-bateko limurtzea bere baitan hartu ditu ezinbesteko ardatz, eta eraikinak irudi-produktu bilakatu dira eragiketa komertzialaren arrakasta bermatzeko.

Gure garaiko arkitekturak pairatzen duen irudiaren gehiegikeriaren ondorioz, arkitektura, begiaren arte simplea bailitzan plazaratzen zaigu askotan, pentsaera eta arkitektura greziarrean hasi zen zirkulua osatuz. Baina gure kultura, kamerak gelditutako irudi inprimatuaren arte bilakatu da

arkitektura, non irudiaren gehiegikeriak haien barneratze-abiadura handiarekin batera lautu egin dituen, irudi bakar bihurtzen dituelarik beraien plastikotasuna galaraziz. Gure izatea munduan esperimentatu beharrean, kanpoaldetik begiesten dugu erretinaren azalean proiektatutako irudien ikusleak bagina bezala.

Susan Sontag-ek fotografiatutako irudiaren pertzepzioaren papera aztertu du eta horrek gure munduaren pertzepzio eta ulermenean duen paperaz hausnartu. «Munduari argazki posibleen jolas bat balitz bezala begiratzen dion pentsamoldea» darabilgula idatzi du eta «errealitatea gero eta gehiago antzematen zaiola kamerak erakusten digunari» eta, ondorioz, «argazkien nonahikotasunak efektu kalkulazina eragiten diola gure sentsibilitate etikoari. Egunerokotasuna beronen bikoiztutako irudiez populatzean, argazkiak, mundua dena baino abegitsuagoa dela ohartarazten digu» (Sontag, 2005)

Heidegger-en esanetan ere «garai modernoaren gertakizun nagusia mundua irudi bakar bat balitz bezala konkistatzean datza». Irudi hori, marrazkigintzaren teknikaren garapenean oinarritutako adierazpen tresna gisa erabili du arkitektoak urteetan zehar. Izan ere, proiektua definitzen duen txostenean nagusi izan da marrazkiaren bitartez adierazitako dokumentazio grafikoa gaur arte, non kode eta arau teknikoek idatzizko txostenen bilduma luze bat gehitu dioten aurrekoari, zenbaitetan kopuruan gaindituz.

Zentzumenean alienazioa

«Munduaren irudia ez da pasatzen Erdi Arokoa izatetik modernoa izatera, baizik eta mundua irudi bilakatu ahal izatea da Garai Modernoa bereizten duena» (Heidegger, 1995: 89). Horrek, arkitektura irakatsi, pentsatu eta kritikatzeko moduan duen eraginarekiko kezka aurkezten dute Peter Zumthor, Alvar Aalto edo Juanhi Pallasmaa bezalako zenbait arkitektoak ikusmenaren nagusitasunak beste zentzumena baztertu dituela ikustean, eta beren obra eta idatzietan salatzen dute nola ezaugarri sentsorial eta sentsualak desagertu diren arteatik eta arkitekturatik.

Heideggeren behaketei so, prentsa espezializatuari esker oso ezagunak diren azken hogeitazko proiektu arkitektoniko askok nartzisismoa zein nihilismoa adierazten dute. Begi nartzisistak auto-espresiorako bide eta jolas intelektuala eta artistiko bat balitz bezala ikusten du arkitektura, zein gizartearekiko konexio oinarritzeko eta nagusietatik bananduta dagoen. Begi nihilistak, bestalde, distantzia sentsoriala, mentala eta alienazioa elikatzen ditu.

Baina egunerokotasunarekiko urruntze hau ez da arkitekturaren soilik gertatzen, kultura garaikidearen errealitatearekiko urruntze orokortu batekin du lotura jarrera honek. Eskulturaren eta pinturaren ere kuriositate eta plazer sentsualetik urruntzen diren lanak dira maiz testuinguru garaikidean nagusi, zeinek gaitasun kontzeptual eta adimenari hitz egiten dioten askotan, zentzumen eta gorputzaren osotasun bati erantzun beharrean. Pairatzen dugun etengabeko lotura gabeko irudien ekaitzak, irudiak apurka-apurka beraien esanahi emozionalez husteru garamatza eta, horrela, irudiak aspertasuna atzeratzeko manufakturatutako produktu infinitu bilakatzen dira etengabeko berritze-nahi aseezineko zirkulu bat marraztuz.



Irudia: Begiaren sinesgaiztasuna da bere ahultasun handiena
Caravaggio (1601-02) *San Tomasen sinesgaiztasuna* [Margolana]

Espazio eta denboraren esperientziak bata bestearekin galdatu dira abiaduraren bitartez eta, ondorioz, bi dimentsioetara bueltatu gara. Abiadura horrek laututako etengabeko orainean bizitzera garamatzaten abiadura eta aldiberekotasuna direla eta, iragana eta memoria desegin dira.

Hori 3D inguruekin gertatzen da. Errealitate birtualak sortzean, aurkeztu nahi dena lautu egiten da askotan. Hiperrealismo-nahi horretan begiari hitz egiten zaio guztiz eraikitako irudi multzo itxi bat eskainiz, non ikusleak bere irudimenaz zentzu guztien osotasun bat eraiki beharrean, emandako produktuari ikuskatze pasibo bat ematen dion, azkar batean kontsumitutako zerbait. Irudia, marrazkia, 3D edo bestelako euskarria erabilita ere, adierazi nahi den errealitatea ordezkatzeko baino areago, irudikatze gaitasunean datza adierazpenaren arrakasta. Beste modu batera esanda, informazio gehiago gordetzen al du 3D euskarriak paperezko zirriborro edo beste euskarri baten aldean? Guztiak erremintak besterik ez dira.

Bizi izandako espazio baten ingurune kontzeptua adierazterakoan, zentzu batek besteak baino pisu handiagoa izan lezake adierazi nahi denaren arabera, baina ezin dira beste zentzumenak baztertu, ez behintzat modu inkontziente batetan. Arreta jartzen badiegu egunerokotasunean bizi izandako espazioen esperientziei, ikusizkoak ez diren beste zentzumenek tolestuta jasotako informazioa zabaltzean, ikusmenarekin jasotakoak bezainbeste edo informazio gehiago gordetzen dutela hautemango dugu.

Juhani Pallasmaak bere *The Eyes of the Skin* liburuan dioenez, gaurko egunerokotasuneko arkitekturaren korrontearen patologien alderdi asko zentzumenen analisi epistemologiko baten bitartez eta gure gizartearen kritika okularzentrista orokor baten bitartez uler daitezke (Pallasmaa, 2006). Begiaren nagusitasunak eta beste zentzumenen ezabatzeak urruntzera bultzatzen gaitu, isolamendura eta kanpoan gelditzera. Begiaren arteak eraikin miresgarriak eta gogoeta merezi dutenak eraiki ditu, baina ez dutela giza errotzea munduan errotu adierazten du arkitekto finlandiarrek.

Oro har, proiektu modernoak adimena eta begia bereganatu ditu, baina umezurtz utzi ditu gorputza eta beste zentzumenak, gure oroitzapen, amets eta irudimenarekin batera eta horrek gure izatea osotasunean jasotzea oztopatzen du. Merleau Ponty filosofoaren hitzetan: «Pertzepzioa ez da ezagututako ikusizko, ukitutako eta entzundako datuen multzoen batuketa bat. Forma bakar batez hautematen dut nire izatearen osotasunarekin: gertakizunaren egitura bakarra jasotzen dut, izateko modu bakarra, zeinek aho batez hitz egiten dien zentzumen guztiei batera».

Arkitektura proiektatzerakoan euskarri fisikoari arreta jartzean hau ikusmenarekin soilik irudikatzea saihestu beharko genuke proiektatutako espazioaren izatearen osotasuna jasotzera bidean.

Arkitekturaren ikuspegi gestaltikoa

Egungo teknologiek neurri batean lana erraztu badigute ere, onartu beharra dugu ordenagailuz manipulaturako irudiek erretinaren bidaia pasibo batean murgil gaitzaketela. Espazialtasuna, barnetasuna eta ukitzeko gaitasunaren esperientzia biltzeko faktore nagusietako bat ikusmen garbi eta enfokatuaren ezabatzean datza. Hori baztertuta dagoen gai bat da, egungo arkitekturak ikuste enfokatu, asmo kontziente eta perspektibaren errepresentazioa lehenesten dituelako.

Arkitekturaren argazkiak enfokaturako Gestalt baten irudi zentralizatuak dira egungo aldizkari eta medioetan, eta errealitate arkitektoniko baten kalitateak subjektuak espazioan garatutako ikuste periferikoaren jatorriarekin du mendekotasuna batez ere. Pertzepzioaren eremu aurrekontziente, enfokaturako ikusmenaren esferaren kanpoaldean esperimintatzen dena, badirudi existentzialki irudi enfokatu besteko garrantzitsua dela. Izan ere, zenbait frogak medikok bermatzen dute ikuste periferikoak garrantzi handiagoa duela gure pertzepzio-sisteman eta sistema mentalean (Ehrenzweig, 1975).



Ezkerreko irudia: Alienatutako hiria Brasilian. Egilea: Mariana Miranda; **Goiko irudia:** Margolari espresionistek estimulu periferikoak eskaintzen dituzte beren margoetan. Pollock, Jackson (1950) *One: Number 31* [Margolana]

Hori, euskarri fisikorik gabe eraiki daitezkeen ordena edo arkitekturetan ere hauteman daiteke. Izan ere, ikusmenak baino eragin handiagoa izan dezakete komunitatearen eraikuntzan. Soinua (ustez) ukigaia ez izatean datza oharkabean pasatzearen arrazoia. Egoera lauso bat bezala hurbiltzen zaigu ingurura gehienetan oharkabean gure errealtate periferikoa eraikiz, eremu aurre-kontzientean zuzenean eraginez. Ikusmenarekin ni heltzen natzaio objektuari, baina soinua objektuarengandik heltzen zait niri, intrusiboagoa da. Jasotako irudia nire eremu fisikotik at dago eraikia, baina jasotako soinua nire barrura sartu eta kolpatu egiten du nire eremu fisikoa nahi eta nahi ez. Gorputzak, berez, ez ikustea erabaki dezake baina ez entzutea ez. Horren erabileraz bazekiten naziek eta estrategia militarretatik jaiotako Muzakl kontzeptua bereganatu duen sistema kapitalistak, dentistaren kontsulta nerbiosoetatik hasi eta espazio publikoetaraino, guztion ordena lasaitu bat indultzeko asmotan era guztietako euskarrietan igorritako fondoko musikak erabiltzean agerian geratzen dena. Edozein eraikinetan ibilbideak gidatzeko korridoreak diseinatzeko ditugun zorrotzasunarekin eraikitzen dira ukigaiak ez diren soinu-eremuen kale-tarteak (Orquesta del Caos, 2005).

Gure garaiko antzezleku arkitektoniko eta urbanoak antzezleku historiko eta naturalekin konparatuz atzerriar sentiarazten gaituen arrazoiak bat da ikusmen periferikoaren eremuan duten pobretasuna. **Pertzepzio periferiko inkontzienteak erretinaren Gestalta gorputz eta espazioaren esperientzia bihurtzen ditu. Ikusmen periferikoak espazioan integratzen gaituen bitartean, ikusmen enfokatuak, berarengandik kanporatzen gaitu ikusle pasibo bilakatuz. Foku-galerak, begia, nagusitasun patriarkaletik aska dezake.**

///

Bibliografia:

- Le Corbusier (1998): *Hacia una arquitectura*. Apóstrofe, Barcelona (jatorrizko argitalpena *Vers une architecture*, 1923)
- Ehrenzweig, A. (1975): *The psychanalysis of artistic vision and hearing: an introduction to a theory of unconscious perception*. Sheldon Press, Londres.
- Heidegger, M (1995): *Caminos de bosque*, Alianza, Madrid.
- Ong, W. J. (1991): *Orality and Literacy: the technologizing of the word*. Routledge, Londres-New York.
- Orquesta del Caos (2005): *Espacios sonoros, tecnopolítica y vida cotidiana. Aproximaciones a una antropología sonora*, Generic, Barcelona.
- Pallasmaa, J. (2006): *Los ojos de la piel: la arquitectura y los sentidos*, Gustavo Gili, Barcelona
- Sontag, S. (2005): *Sobre Fotografía*. Editorial Alfaguara, Madrid. (jatorrizko argitalpena *On photography*, 1977, Penguin, Londres).

¹ <<http://www.muzak.com.mx/historia.html>>. Muzak kontzeptu bilakatutako multinazional baten izena da. Haien web orrialdean garapen historiko, jatorri eta helburuen berri ematen dute.